**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARA SARTZEKO PROBA**
**ARTEETAKO BERARIAZKO ZATIA**
**2024ko DEIALDIA**

*4/2024 EBAZPENA, urtarrilaren 25ekoa*

---

**BOLUMENA**

**KALIFIKAZIOA**

**DEITURAK** ------------------------------------------------

**IZENA** ------------------------------------------------

**NANa** ------------------------------------------------

---

## 1.-INGURA EZAZU BIRIBIL BATEKIN BOLUMEN IRAKASGAIAREN DEFINIZIORIK ZUZENENA. *1 puntu*

| | |
|---|---|
| a.- Bolumena zera da, bolumen handiko gorputzen hizkera plastikoa irakasten duen irakasgai praktikoa. | b.- Bolumena zera da, gorputzak espazioan aztertzen dituen irakasgai teorikoa. |
| c.- Bolumena zera da, hizkera praktiko tridimentsionala irakasten duen irakasgai praktikoa. | d.- Bolumena zera da, hizkera plastiko tridimentsionala irakasten duen irakasgai teoriko-praktikoa. |
| e.- Bolumena zera da, hizkera plastiko bidimentsionala irakasten duen irakasgai teoriko-praktikoa. | f.- Bolumena zera da, hizkera piktoriko tridimentsionala irakasten duen irakasgai teoriko-praktikoa. |

## 2.- ZERTAN DIRA BERDINAK HIRU ARTELAN HAUEK? *1 puntu*





…………………………………………………………………………………………………………………………

……………………………………………………..………..

**3.- Bi objektuk edo gehiagok hainbat posizio izan ditzakete eta horrek artelanaren egitura orokorra baldintzatzen du. Irudi hauetako bakoitza formen arteko posizio mota batekin loturik dago.**
**LOT EZAZU IRUDI BAKOITZA DAGOKION POSIZIO-ERLAZIOAREKIN.** *1,5 puntu*



**A**



**B**



**C**



**D**



**E**



**F**

| | | | |
|---|---|---|---|
| EBAKETA | | ERANSKETA | |
| GAINJARTZEA | | KENKETA | |

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARA SARTZEKO PROBA**
**ARTEETAKO BERARIAZKO ZATIA**
**2024ko DEIALDIA**

*4/2024 EBAZPENA, urtarrilaren 25ekoa*

| KONTAKTUA | | URRUNTZEA | |
|---|---|---|---|

**4.- GUTXIENEZ ZENBAT NEURTU BEHAR DU ESKAIOLA BLOKEAK IRUDI HAU ZIZELKATU AHAL IZATEKO?** 1 puntu




……………………………………………………………....

**5.- SOILIK LERROAZ BALIATURIK, BIHUR EZAZU IRUDI LAU HAU BOLUMENDUN IRUDI.** *1,5 puntu*



## 6.-HONAKO BAIEZTAPEN HAUEK EGIAK ALA GEZURRAK DIRA? *1,5 puntu*

| | | E | G |
|---|---|---|---|
| **1.1** | **Berriz ere modelatu daiteke buztin errearekin, behar beste hezetzen bada?** | | |
| **1.2** | **Molde galdu bat da kopia ateratzeko pikatu behar den molde bat.** | | |
| **1.3** | **Hustuketa batean, anil-hautsa daraman geruza kopia-geruza deitzen da.** | | |
| **1.4** | **Eskaiolaren gogortze prozesuari enkofratu deitzen zaio.** | | |
| **1.5** | **Hustuketa da kopiak egiteko prozedura bat.** | | |
| **1.6** | **Gramila da zura lantzeko balio duen tresna bat.** | | |
| **1.7** | **Assamblage teknika zera da, askotariko jatorria duten elementuak uztartzea pieza eskultoriko unitario bat eratzeko.** | | |
| **1.8** | **Buztin freskoko bi pieza itsasteko buztin freskoa erabiltzen da.** | | |
| **1.9** | **Zizelkatzea kentze-teknika bat da.** | | |
| **1.10** | **Buztinezko lan baten molde galdu bat egiteko, buztinak lehor egon behar du.** | | |
| **1.11** | **Zizelkatzea pasta bati forma ematea da, ore zatiak gehituz edo kenduz.** | | |
| **1.12** | **Eskaiolaren tenperatura aldatu egiten da fraguatze prozesuan.** | | |
| **1.13** | **Aurrerago landu ahal izateko, buztin freskoa gordetzeko modurik onena da argitik babestea.** | | |
| **1.14** | **Trintxa itxura kurbatuko tresna erdibiribila da eta azalera kurbatuak lantzeko balio du.** | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **1.15** | **Sobera dugun eskaiola inoiz ez da hustubidean behera bota behar.** | | |

**7.-INGURA EZAZU BIRIBIL BATEKIN ERANTZUN ZUZENA.**
**FORMARI BEGIRATUTA; NOLA KALIFIKATUKO ZENUKE pieza ESKULTORIKO HAU?**
*1 puntu*



| | |
|---|---|
| | **a) ERREALISTA** |
| | **b) ITXIA** |
| | **c) DINAMIKOA** |
| | **d) IREKIA** |
| | **e) ORGANIZISTA** |

**8.- KONTUAN HARTUTA FIGURAREN GARAPEN LAUA, MARRAZTU EZAZU ESKU HUTSEZ PIEZA BOLUMENDUNA.** *1,5 puntu*



